

Arrasate

P R E S S

1996ko
Urtarrilak 12
303. zenb.

EKONOMIA

**Enpresa
Berritzaileen
Zentroa
Arrasaten**

IRITZIA

**Eugenio
Iturriotz**

ELKARRIZKETA

**Pablo Garcia,
umea tratu
txarretatik
babesten**


**Gripea
sasoiko bisita**



marKeliñe

antzerki taldearen eskutik

KALE GORRIAN LA GARBOSA



**(HITZIK
GABEKO
ANTZERKIA)**

Azpeitian ospatutako Euskadiko XIII. Antzerki Topaketetan lortutako sariak:

- Ikusleen Saria
- Kritikaren Saria

Amaia Antzokian

Urtarrilak 19 eta 20an (Ostirala eta Larunbata)

Gaueko 10.30etan

Sarrera: 800 pta. (Gazte Txartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA

**BASABE
JATETXEA**Menu eta aforiak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

Hirugarren esparrua

Elkarriren agiriak eragindako zarataldia baretu denean, azalaren azpiko mamiari erreparatzeko ordua ailegatu da. Eta ahal den neurrian, egunkarrietan titular biribilak lortzeaz baino gerora baliagarri izango diren norabideak aurkitzeaz arduratuago.

Elkarrik ETA kritikatu duela eta alde batekoek txalo eta bestekeok txistu. Ez dut esango gaia hutsaren hurrena denik, baina ez da hori izan niretzat agiriarren pasarterik mamitsuena, hirugarren esparruarena baizik.

Garbi azaldu nahi dut Elkarriengandik hurbil sentitzen banaiz ere, bost axola zaidala Elkarri berak. Elkarrirentzat ere ez dut uste helburua Elkarri denik. Kontua ez da, beraz, Elkarri arrazoa ematea edo Elkarri defenditu beharra. Kontua da euskal gizarteak jasotzen dituen mezu politikoak gogortzen ari direla eta sinpleagotzen, nirekin edo nire aurka, Aldaia edo presoak, Ajuria Enea edo KAS, eskubide hau edo beste hurra... kontua da setakeriarako deiak datozkigula alde bietatik, bakoitzak arrazoi osoa eta besteak apurrik ere ez duela dioten mezuak.

Eta nik, barkatu baina ez, ez dut nire burua Aldaiaren aldeko agerralditan ikusten, ez eta aurre-aurrekoetan ere, Aldaiaren eta Euskal Herriaren eskubideak gogoan eta gogoko ditudan arren. Nik,

nera uste apalean, uste dut gai hauetan -soinean bezala- bihotza alde baterago daukagula denok baina burua -soinean bezala- ardatzaren gainean kokatua behar dugula. Nik, atzera begira jartzen naizenean, euskal gizarte duela hogeitau urte baino banatuago eta zatituago ikusten dut, herri gisa ez gaude orduan baino helduago. Hitz gutxitan, ez goaz bide egokitik.

Eta nik, azkenik, aitortzen dut kokoteraino nagoela bilbotar eta giputxen txisteez, ulertzen dudala Mosquera, Gorordo, Alli edo Elorzaren "lokalismoek" duten tirakada, eta pentsatzen dudala Euskal Herria inoiz nazio izango bada bertan bizi garenok horrela komeni zaigula erabakitzen dugunean izango dela, nazio gisa jokatzek guztion interes amankomunerako abantailak dituela frogatzen denean. Eta horrek lana eskatzen du, lana sendo egitea!

Baina ez gaituzte herrigintzara deitzen, trintxeretara baizik. Eta ni ez noa. Eta somatzen dut jende gehiago ere ez doala, eta ni bezala begira dagoela, orain trintxera honetara, gero bestera, tenis jokaldi triste eta mingarria bailitzan.

Trintxerak baino zubiak maiteago ditugunokin ari da osatzen -gu asko ohartu gabe- hirugarren esparrua.

MIKEL IRIZAR**• ARRASATE PRESS •**

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Leguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasoñe Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Makotazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leiniz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kapi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rulina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Memesa

79 42 22

**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZA ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Lore Gazteak dantza taldea eta Santamasak

Aurten Lore Gazteak dantza taldeak ez du Santamas jaietan parte hartu eta hutsegite honek benetan mindu gaituela agertu nahi dugu. Hain zuzen ere, garai batean berrindartze lanetan aritu zen taldeetarikoa bat garelako (galdua baitzen). 20 urtetik atzerako ekintzez hitzegiten ari gara eta denbora honetan guztian inoiz ez diogu euskal kulturaren jai honetan parte hartzeko gonbiteari ezetzik eman.

Aurten, ordea, Santamas Batzordeak azken urteotan herriko taldeekin izan duen jarrera dela medio, ez irteza erabaki dugu.

Zoritxarrez, gure gizartea mugitzen duena dirua da. Eta batzordeak ere diru bat banatzen du jai antolatze-ko orduan. Baina diru hori, Arrasateko herriarena den diru hori, herrikoak ez diren taldeek eramaten dute, bertako talde gehienok pezeta bat ikusten ez dugun bitartean.

Batzordearen filosofia "herrikoak herriarentzat" da, hau da, herriko taldeek herrian aktuatzeagatik ez dute dirurik eskuratu behar. Parte hartze horren truke, Batzordeak, taldeak herri bazkarira gonbidatzen ditu.

Lore Gazteak-en iritziz, herriko dirua herriko taldeen artean banatu behar da, jaien antolakuntzan erabiltzen den diruaren zati bat herrian gelditu behar dela alegia. Horregatik iaz Batzordeari honako eskakizuna egin zitzaion: taldea herri bazkarira gonbidatu beharrean (gonbidapena gaizki ikusten ez dugun arren) bazkari-txartelen balioa dirutan ematea. Edo bestela esanda, "espezie bidez" ordaindu

beharrean dirutan ordaintzea. Era honetan Batzordeak taldearekin aurrez gastatzea pentsatzen zuena gastatzen du, baina taldea ekonomikoki laguntzen du.

Aurten berriz, Batzordeak iaz onartu zuena ez du onartu. Jakin beharrekoa da herriko beste zenbait taldek garai batean eskatutako dirua gaur egun oraindik jasotzen duela.

Herriko talde guztiei zabaldu nahi diegun eskakizunarekin (azken hau argi gelditu dadila) argi dago ez dugula aberastu nahi. Bai ordea Arrasateko kulturak, eta azken finean Euskal Herri guztikoak, berez duen aberastasuna agertaraztea. Baina horretarako laguntza bat behar da.

Guk planteatutako diru banaketa horrekin lortzen dena euskal kulturari bultzada bat ematea da, horren premiarik bada eta. Gure kulturak tratamendu berezia behar du, urteetan jasandako zapalkuntzaren ondorioak oraindik ez baitira guztiz gainditu.

Bukatzeko, Lore Gazteak-ek, beti bezala, herriarentzat lanean jarraituko dela jakin arazi nahi dugu.

Zorionak eta urte berri on guztioi.

LORE GAZTEAK

Noiz arte?

Joan zen larunbatean, goizaldeko ordubi terdian Ocañako espetxeruntz irten ginen han dagoen herriko euskal preso batekin 40 minutu eskas, kristal eta barrote batzuen artean elkar ikusteko. Ni urtean zehar hainbat alditan joaten naiz estatu espainoleko espetxeetara han dauden lagunekin hitz batzuk

izateko, eta denetan kotxe istripuak ikusi ditut. Joan zen astean 900km. gutxi gora behera egin genituen joan etorrian, eta kilometro hauetan 5 kotxe istripu ikusteko aukera izan genuen. Arnasa kentzeko istripuak gainera.

Baina badira astero astero (aukera dutenak behintzat) senitarteko presoak ikusteko milaka kilometro egiten behartzen duen legearen aurkako dispersioa deitzen den neurri politikoa.

Eta honen aurrean, herri-tarrei galdera ximple hauek egitea eskatzen diet:

- Zer esaten du legeak dispersioari buruz?

- Badakizu estatu espainola, frantsesa eta alemaniarrean sakabanatuta daudela euskal presoak?

- Zergatik espetxean dagoen maite duzun senitarteko-laguna ikusteko horrenbeste kilometro?

- Ze koste ekonomiko suposatzen du?

- Ez al daukate nahikoa espetxean egonda?

- Zergatik ez Euskal Herriko espetxeetan?

- Zergatik senitartekoak ere zigortu?

Askotan entzun ditugun galderak dira, baina neurri hau diseinatu dutenen artean ere hasi gara entzuten honen ilegaltasunaren berri eta aurkako adierazpenak eta badira 10 urte horrelako egoera sufritzen.

Noiz arte? hitz eta adierazpenekin bakarrik ez goaz inora, zergatik ez legeak egiten dutenek, beraien lege horiek betetzen hasi?

Gogoratu gainera dispersioa ezarri zutenetik kotxe-istripu ugari izan dela bisitan zihozazenen artean, mutilatuak ere ugari eta 3 hildako daudela zerrenda triste honetan.

Gehiago sakondu gabe, honexegatik, euskal presoak Euskal Herrira!!

AITOR ETXABE

Hartu duzu griperik azkenaldian?




Ana Sanchez Etxekoandrea
(43 urte)

Bai, eta nahiko handia. Astebete antibiotikoak hartzen egon naiz, ezta ezta infekzioa nuen eta kalentura.



Migel Mari Agirreurreta Langilea
(38 urte)

Ez eta gainera urtero libratzen naiz gaisotasun horretatik.




Eguzkiñe Loiti Etxekoandrea
(34 urte)

Ez, aurtun oraindik ez dut hartu. Behin bakarrik izan dut gripea eta joan den udaberrian izan zen.



Jose Antonio Sajeras Langilea
(26 urte)

Ez, gutxienez 3 urte dira griperik hartzen ez dudala, osasun ona daukat eta!



Juan Ramon Elorza Langilea
(44 urte)

Bai, baina ez oso gogorra. Botika batzuk hartu nituen eta ez nuen etxean geratu beharrik izan. Kalentura apur bat ere izan nuen.



Lucia Otadui Baserritarra
(78 urte)

Bai, nahiz eta txertoa hartu. Gainera, aurtengoa sekula eduki dudana txarrena izan da!



Karlos Uribarren Langilea
(39 urte)

Bai, hartu dut, urtero hartzen duen horietakoa naiz eta. Dena dela, ez naiz ohean egon. Lanera joan naiz eta medizinarik ere ez dut hartu.



Mari Carmen Lizarralde Langilea
(38 urte)

Ez, eta normalean ez dut griperik hartzen. Etxean ere ez da gaisorik egon eta ea horrela jarraitzen dugun!

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

OÑATIKO OSTALARITZA ESKOLAKO JATETXEA

*Hemendik aurrera
aste bukaeratan ere zabalduko dugu*

*Eguneroko menua
menu bereziak, etab...
Kontsulta gaitzazu!*

Patrua kalea, 7
20560 OÑATI
Tfnoa: 71 60 26

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 11 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Montterongo liburutegia
 Montteron77 01 05

12 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Antartida" 7etan eta 10etan.

• **BLUES KONTZERTUA ATERPEN**
 Ñaco Goni Blues musikoak kontzertua eskainiko du Aterpe tabernan gaueko 10.30etan.

• **DIPOSITIBA EMANALDIA**
 Gaia: Trilogia en Himalaya. Emalea: Juanito Oiarzabal. Zaraia zineman gaueko 10etan. Murruxiko elkarteak antolatuta.

13 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Los puentes de Madison" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **TXATXILIPURDIKO LUDOTEKA IBILTARIA**
 Txatxilipurdik antolatutako Ludoteka ibiltaria San Andresko alkatezian, Kurtze txiki plazan goizeko 11etatik ordu-bata arte. OHoko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., eta 8. mailako ei zuzenduta.

• **ATZERATUEN JAIALDIA ARETXABALETAN**
 Gaueko 9.30etan atzeratuena jaialdia Aretxabaletako Zaraia zineman: besteak beste, akordeoi emanaldia, Sonora Cerrajera eta txiste lehiaketa. Aratz elkarteak antolatuta.

• **ASKAGIINTZAKO TOPAKETAK**
 Gaia: Prebentzio komunitarioa eta Udalaren papera. Goizeko 10.30etatik 2ak arte Udaletxeko hirugarren solairuan.

14 IGANDEA


• **ZINEA**
 "Los puentes de Madison" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ESPAINIAKO ORKESTRA NAZIONAL GAZTEAREN KONTZERTUA**
 Espainiako orkestra nazional gaztearen kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

• **AL ANDALUS TALDEKO BATZAR OROKORRA**
 Al Andalus kultur elkartearen egoitzan goizeko 10etan lehen deialdia eta 10.30etan bigarrena. Batzarraren ostean, luntxa izango dute hurbiltzen diren guztiak.

ARGAZKI ERAKUSKETA MONTERRONEN

Urtarrilaren 12tik 21ra arte Santamas 95 argazki lehiaketaren erakusketa Monterronen. Orduategia: egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12 etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.



ESKI KANPAINA BESAI DEN

Besaide eski taldeak astebukaera eta Alpeetara joateko bidaiak antolatu ditu dagoeneko. Informazio zabala jaso nahi baduzue Besaideren egoitzara zuzendu arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara, astelehen, astearte eta asteazkenetan.

II. ARRASATE KANTARI

AEDk herriko beste zenbait talderekin batera II. Arrasate Kantari jaialdia antolatu du martxoaren 23a arte. Kantu jaialdi horretan hamabost urtetik gorako edozein pertsonak, taldek zein koadrilak har dezake parte. Talde edo parte hartzaile bakoitzak bi abesti kantatuko ditu eta gehienez 6 minutuz luza daiteke. Musika estiloa libreda, baina jakina, euskaraz abestu beharko da. Jaialdian parte hartzeko izenematea AEDn egin beharko da otsailaren 16a baino lehen.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara 10etatik aurrera: Morales. San Andres.

Larunbata 13
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara 10etatik aurrera: Azkoaga. Ferrerías.

Igandea 14
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara 10etatik aurrera: Español. Iturriotz.

Astelehena 15
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara 10etatik aurrera: Corcuera. Musakola.

Asteartea 16
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Asteazkena 17
 Egunez eta gauez: Amezuza. Santamaina.

Osteguna 18
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

15 ASTELEHENA

• ZINEA

"Los puentes de Madison" 7etan eta 9.30etan.

• HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Bosniako bake akordioak. Gatazkaren bukaera?. Hizlaria: Jabier Villanueva. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Zutikek antolatuta.

16 ASTEARTEA

• ZINEA

"Los puentes de Madison" 7etan eta 9.30etan.

• BESAIDE ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Besaide mendizale elkartearen egoitzan arratsaldeko 7.30etan. Jorratuko diren gaiak: Aurreko aktaren onarpena, 1995eko aktibitatearen balantzea, 1996ko aktibitatearen azalpena eta aseguru.


18 OSTEGUNA

• ZINEA

"Mortal Kombat" 7etan eta 9.30etan.

• HITZALDIA

Gaia: Adoleszenteak: erasotzaileak ala erasotuak. Arratsaldeko 7etan Monterronen.



MARKELIÑE ANTZERKI TALDEA

Urtarrilaren 19an ostirala Markeliñe antzerki taldearen "Kale gorrian" antzezlanaren Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

BOSNIA ETA ADOLESZENTEAK MINTZAGAI MONTERRONEN

Bi hitzaldi entzuteko aukera izango da aste honetan Monterrogo hitzaldi aretoan. Alde batetik Bosniako gaur egungo egoera aztertuko da, gatazka benetan bukatu den edo ez jakiteko, komunikabideetan irtetzen diren berriak ulertzeko baliagarri izan daitekeena; bestetik nerabetasuna aztertuko da, erasotzaile ala erasotuak ote dira gazteenak. Kezka horiek argitzeko, onena asteartean eta ostegunean arratsaldeko 7etan Monterronera agertzea.

FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROAK

Bigarren ikasturterako hainbat ikastaro antolatu du Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak. Goizeko 9.30etatik aurrera Geriatria, sukaldaritza eskulanak eta masaia ikastaroak izango dira astelehenetik ostirala arte, ikastaro bakoitzari dagokion orduan. Arratsaldeko 3.30etan hasita bricolagea, euskara, pintura, punta eta gantxiloa eta sukaldaritza ikastaroak. 6.30etan beste horrenbeste ikastaro. Honen guztien berri jakin nahi baduzue deitu 79 04 59 zenbakira edo zuzendu lokalera.

ANTZERKIA MAKILAIA ETA ALBOKA IKASTAROAK

Antzerkirako karakterizazio eta makilaia tailerrak. 60 orduko iraupena. Hasiera urtarrilaren 16tik martxoaren 21a arte, astearte, asteazken eta ostegunetan. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik 8etara. Hileko matrikula 3.500 pta. eta 2.500 pta. ikasle eta langabetuentzat. Alboka ikastaroa urtarrilaren 13tik apirila arte larunbat goizetan. Ordutegia goizeko 10etatik 11etara, 11etatik 12etara eta 12etatik ordubata arte. Izenematea 2.000 pta., ikasle eta langabetuentzat 1.000 pta. Informaziorako eta izena emateko Gazte Bulegora joan edo 77 00 65 zenbakira deitu. Arrasateko Udalak antolatuta.

“Carlos Croves guk fitxatu dugu, beraz gure jokalaria da. Taugresekin jokatu ahal izango du, baina guk behar ez dugunean bakarrik. Bere beharra badaukagu amerikarrak gurekin jokatu beharko du. Argi eta garbi agertzen da hori Taugresekin sinatuta daukagun akordioan”.

Jon Ander Juldain,
“La Movida Deportiva”
Urtarrilak 10.



“Oso noiz behinka egiten dut horrelako eskapadarik. Ni kazetaria naiz eta gainera gustora nabil neure lanean, igandetako Egunkariako gehigarriaren ardura eramaten. Ez dut ikusten neure burua idazle bezala”.

Luis Fernandez,
“Egonean Giro”
Urtarrilak 9.



“300. alea. Erraz esaten den zenbakia da, baina atzetik zazpi urteko lana dago, hainbat aldaketa eta beste horrenbeste arazo eta oztopo. Egunean egunekoa eginez eta astero astero beraien jardunari gogoz helduta, Arrasate Pressek merezi duen tokia lortu du. Gainera eta bide berdietik jarraituz Euskal Herrian hainbat eta hainbat aldizkari sortzen ari dira, tokian tokiko informazioari leku bat egin asmoz; honekin batera beharrezkoa da azpimarratzea herri baten alfabetizazio lanean duen eragina”.

Goibekokale aldizkaria, abendua.

Goibekokale

Zein ikastaro antolatu dituzue datozen hiru hilebeteetarako?

Aurreko hiru hilabeteetan izan ditugun ikastaroak aurrera jarraituko dute aurten ere. Sukaldaritza, geriatría, pintura eta altzariak zaharberritzeko ikastaroak izango dira besteak beste. Berriak izango dira, berriz, FP1eko eta fiskalitateari buruzko ikastaroak. Dagoeneko eskolatan parte hartzeko izenematea zabalik dago eta ikastaro batzuk ere hasi dira, baina oraindik badago tokirik parte hartu nahi duenarendako.



Jone Astigarraga
Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruko arduraduna

Famili eta Gizarte Hezketarako Zentrura adin desberdineko emakumeak etortzen dira. Arratsaldetan zentrura etortzen direnen batz besteko adina 50 urte ingurukoa da, gauzez ez da 40ra heltzen eta goizetan zertxobait gazteagoak etortzen dira. Goizetan etxeoandreak eta langabezia daudenak hurbiltzen dira, arratsaldetan gehienbat etxeoandreak eta gauetan egunez lan egiten dutenak. Gehienek taillerretan ematen dute izena, sukaldaritzan eta eskulanetan batez ere. Zentrorako garrantzitsuagoa da hala ere, gizabanakoaren garapenarekin zerikusia duten ekintzak bultzatzea, eztabaida saioak adibidez.

Kopuruari dagokionez jende gehien arratsalde hurbiltzen da. Ordu horretan ehun plaza inguru daude, goizez 54 eta gauzez 81. Baina emakumeak bakarrik ez, gizonezkoak ere hurbiltzen dira. Joan den hiruhilabeteen 20 gizonen parte hartu zuten, gehienek sukaldaritza eta pintura ikastaroetan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Autobusen ordutegi berria

Aurrez jakinarazi zuen bezala, astelehenean autobusen ordutegi berria jarri zuen indarrean Pesak. Horrez gain, Musakolako geltokian berriz ere ibilbide luzeko autobusak geratzen hasi dira.


Gutxienez autobusak Musakolan ere geratzea eskatu zuen Udalak, eta Pesa enpresak onartu egin du.

Minutu bateko itzalaldia

EKIk antolatuta, urtarrilaren 1ean minutu bateko itzalaldia burutu zen herrian. Antolatuta zegoen moduan, argiteri publiko gehiena itzali egin zen eta hainbat etxeetan ere itzali zuten argia. Antolatzaileen esanetan ekintza ondo joan zen baina minutua motz geratu zen. Froga nuklearraren aurka protesta egitea zen ekintzaren helburua.

Sutea Olandixon

Haizetsua izan zen astelehena eta ondorioz, Olandixoko baso batek su hartu zuen. Sutea ez zen handia izan, eta segituan



Titietako minbizia detektatzeko programa hasi da

Astelehenean hasi zen Eskualde Ospitalean, titietako minbizia goiz detektatzeko programa. Osakidetzak antolatutako programa 50 urtetik 64 urtera arteko emakumei zuzenduta dago, eta bi urteko iraupena izango du. Aurten eta datorren urtean, inguruko herrietan bizi diren 6.000 emakumeri mamografiak egingo zaizkie minbizirik duten frogatzeko. Lehendabizi Arrasateko emakumeek jasoko dute mamografiak egiteko gonbidapena, eta ondoren gainontzeko herrietakoek. Euskal Komunitate Autonomoan titietako minbizia da emakumeen artean heriotz gehien eragiten duena.

itzali zuten Zubillagako suhiltzaileek eta Arrasateko udaltzainek. Basoa garbitzen ari zen ugazabak sua piztu ondoren zabaldu zen sutea.

Errege kabalgata

Trafiko arazotxo

batzugin hasi zen hilaren 5eko errege kabalgata. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak zuzendu behar zuten trafikoa, baina gaizki ulertuak tarteko hasieran bi udaltzain baino ez ziren agertu. Arazoa konpondutakoan besterik gabe abiatu zen kabalgata.

JAIOZAK

- Xabier Martinez Dolara. Abenduaren 15ean.
- Zoraida Garcia Iglesias. 21ean.
- Miriam De La Mata Gallego. 19an.
- Jon Moreno Barrigon. 19an.
- Kimey Barrionuevo Santa-maria. 24an.
- Iraitz Gutierrez Kortabarria. 26an.
- Ainhoa Guridi Blanco. 30ean.
- Maitane Alvarez Elorza. 30ean.

EZKONTZAK

- Juan Carlos Perez y De Fuente eta Ana Isabel Donoso Garcia. Abenduaren 30ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Toribia Garai Albistegi. Abenduaren 26an. 92 urte.
- Visitacion Moyano Sopo. 25ean. 87 urte.
- Lucia Lasagabaster Okina. 27an. 88 urte.
- Julia Mellado Moyano. 28an. 89 urte.
- Pedro Lazpiur Larrañaga. 30ean. 77 urte.
- Domingo Agirreurreta Iturbe. 31n. 67 urte.
- Teodosia Badiola Elexpuru. 29an. 89 urte.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



* Eugenio Iturriotz

Zabarterekin barrote artean

Bidaia luzearen ondoren, gartzela aurrean. Tramitea beteta presoekin komunikatzeko tokira. Barroteak, kris talak, eta kabina txikiak ez dute errazten komunikazioa. Han dator laguna.

- Aupa! Zer moduz? Ez daukazu itxura txarrik.

- Joan den astean bukatu nuen gose greba eta normal jaten hasi naiz. Molestiak badauzkat, baina grabedaderik ez.

- Paketeen liburuak eta kasetak sartu ditut. Ez digute utzi txorizoak sartzen.

- Eskerrik asko! Telebisitarik apenas ikusten dut, nahiago euskal musika eta euskarazko liburuak. Janariarekin badirudi ez dutela nahi guk geure gustokorik jatea. Ezin dugu entsalada normala jan, olioaz eta ozpinenez prestatutakoa, espezieak botatzen diete janariei eta. Eskatu genuen olio, geuk ordaintzekotan, baina ezezkoa eman ziguten.

- Araudi gogorra ez?
- Dispertsioa eta isolamendua gutxi balira, edozein huskeriagatik zigorra, beste preso batekin hitzegiteagatik, oinetakoak lehioan uzteagatik... horregatik gaude gosegreban, ea zer lortzen dugun eta gero ea beraiek hitza betetzen duten, hau 4. gose greba baita gartzela honetan.

Beno eta han zer moduz?
Berriak emanda esan diot itxura baten badagoela auke-

.....
"... konturatu naiz euskal presoan bisitak beti ordu desberdinetan direla, beraiek harremanik ez edukitzeko, ezta elkar ikusteko ere"

raren bat presoak Euskal Herriratzeko. Erantzun dit:

- Ez dut sinesten. Damutze politika hor dagoela hori ez da gertatuko. Ahulen ikusten dituztenak eramango dituzte. Beraien helburua gu zatitzea eta anulatzea da. Gu preso politiko, pertsona moduan onartzen ez bagaituzte, hori ez da gertatuko.

Bisita aidean joan da. Handik irtenda arratsaldean beste presoekin familiarekin elkartu eta konturatu naiz euskal presoekin bisitak beti ordu desberdinetan direla, beraiek harremanik ez edukitzeko, ezta elkar ikusteko ere. Hor familiaren sufri-mendua eta angustia. Ezin kontatu zer sentitzen den, bizi egin behar da.

Guzti horren inguruan gogoeta batzuk:

1) Gartzelan presoak kortako aberea da. Barrote artean, aberea letxe, gartzelako funtzionarioek beren nahiak, desioak, janariak, elkarriketak, mugimenduak, bisitak, korrespondentzia, intimitatea... kontrolatzen dute, presoak damutu dadin. Damutzen ez bada, zigorra.

2) Familien sufrimendua izugarria da, etxeak dauden tokian daudelako eta haraino joan behar izaten dutelako, dirua eta denbora gastatuz.

3) Presoak gogor daude, baina gartzelako zapalkuntza eta bakardadearen ondorioz, presoengan zenbait arazo edo patologia fisiko eta psikiko agertuko dira.

4) Dispertsioa eta bergizarteratze politika arma politiko kriminala da. Presoak askatasunez eta presiorik gabe erabakitzeke, ahalegin hori distantziak hautsi, isolamenduekin bukatu, irainak kendu... bideratu behar da.

5) Pertsona moduan bizitzeko presoek gose grebari ekin behar izan diote. Lagun diezaiegun.

* MEDIKUA

USTEAK USTE

BAILARAKO TELEBISTA

Telebista lokaletan lana egiten dugunok, legerik gabeko mundu batean ari omen gara lanean. Eta bitartean, teoriarik, Telebista potloei kompetentzia egiten ari garen hontan eta telebista lokalen legeri itxaroten ari garen hontan, Deba Beherako telebista baten proiektuaren berri izan dugu azkenaldian. Bertan lanean fin dabilena edo burua erakutsi duena Luis Alberto Aranbarri "Amatiño" dugu, ETBko zuzendari ohia.

Amatiñok aurkeztu duen proposamena ez da atzo goizekoa ARKOn lan egiten dugunontzat. Etxe handiko zuzendaria zela gai hori berarekin jorratu genuen. Adibidez, herri telebistak ETBrentzat korrespondentzia edo kantera gisa lan egitea besteak beste.

Orduan ez zuen aurrera egin ARKOK egindako proposamenak, eta orain Amatiñok bultzada eman nahi dio proiektu horri. ARKO proiektu horren alde izan da aspaldidanik. Amatiñok eman du lehen pausua eta ez dago txarto, denek interesak uztartzea izango da hurrengo lana. Eta Amatiño Jauna, Deba Beherakoa soilik izan beharrean Deba Bailara osokoa izango balitz zer?

JON ALDANONDO



Seguruenik Zerrajeraren orubean eraikiko da zentrua.

Argia ikusiko du Enpresa Berritzaileen Zentruak

Legeak akordioa lortu ondoren, datoren astean eratuko da seguruenez Arrasateko Udalak eta SPRI-k abian jarri nahi duten enpresa berritzaileen zentrua. Horretarako ez ohiko plenoa egingo da, eta Udalbatzak baiezkoa emandakoan SPRI, Udala eta Eskola Politeknikoaren bazkidetzaz osatutako zentrua lehen pausuk ematen hasiko da.

Zentrua non kokatuko den guztiz zehaztu barik dagoen arren, hasieran pentsatuta zegoen moduan Zerrajeraren orubean eraiki daiteke. Xabier Zubizarretak azaldu duenez, "ia seguru Zerrajeran kokatuko da. Azalerari dagokionez, 5.000 m² izango ditu zentruak.

Ekimen industrialak bultzatzea izango da EBZ-aren helburua. Horregatik, ideia enpresarial bat abian jarri nahi dutenei toki bat eta gutxienerako azpiegitura eskainiko die zentruak. Saiolanek, zentruaren gestioa eramateaz gain, ideia aurrera eramaten lagun-

duko die bidegarritasun ikerketak eginez eta formazioa eskainiz. Era berean, dagoeneko eratuta egon baina produktu berri bat garatu nahi duten enpresei, eta produktu batekin lan egin arren produktua hobetu nahi dutenei ere laguntza eskainiko zaie.

Zentruaren bultzatzaileak maila berdinean izango dira bazkide baina parte hartze handiena SPRI-k edukiko du. Azken horrek %74koa izango du, Udalak %25 eta Eskola Politeknikoak %1.

Arrasatek beharrezko azpiegitura delako erabaki du SPRI-k zentrua herrian kokatzea. Esperientzia enpresarial desberdinek, kualifikazio tekniko eta estrukturalak eta kooperatiben mugimenduak zerikusia izan dute.

Arrasateko alkatearen berbetan, "gauzak aurrera eramateko eta ekimen enpresarialak garatzeko gaitasuna erakusten bada, zentrua ondo joan daiteke eta lanpostuak ekar ditzake".

Paper eta beira bilketak gora egin

Deba Garaiko Mankomunitateak ezagutzera eman dituen datuen arabera, iaz %20 gehitu zen beira bilketa Arrasaten. Guztira 317.000 kilo beira jaso ziren 95ean, orain dela bi urte baino 54.000 kilo gehiago.

Inguruko herrietako paper eta kartoia batera jasotzen denez, eskualdeko datuak baino ez daude, baina datu horiek ere birziklapenak balaran gora egin duela erakusten dute. Iaz milioi bat kilo paper eta kartoi batu ziren, orain dela bi urte baino 140.000 kilo gehiago.

Mankomunitateko arduradunak pozik daude inguruan gero eta gehiago birziklatzen dela eta. Horregatik, ohitura osasungarri hori alde batera ez utzea eta edukiontziak erabiltzen jarraitzea eskatu dute. Gipuzkoan eta Euskal Herrian gehien birziklatzen dutenen artean dago Deba Garaia.

Arrasaten beira uzteko 50 edukiontzi daude, baina 500 biztanleko papera uzteko, berriz, 32, baina aurten gehiago jarriko dira.

Arrasateko Toponimia

Jose Luis Ormaetxeak Arrasateko toponimiari buruz egindako lana, Euskaltzaindiaren "Onomasticon Vasconiae" bilduman sartuko du Udalak. 700 ale aterako ditu Arrasateko Udalak.

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE


MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Roneoren etorkizuna ziurtatzea, langileen hurrengo helburua

UCEM Korporazioak Roneo langileen esku utzi ondoren, lanpostuen eta lantegiaren etorkizuna ziurtatzeko bidegarritasun plana egitea da langileen helburua orain. Roneoren bidegarritasuna aztertzen ari da Jose Luis Elgoibar, talde industrial bateko bazkidea dena eta Arrasaten Trefasa enpresa duena. Bi hilabete barru plana gertu izango dela espero da, eta ondoren J.L. Elgoibarrek erabakiko luke Roneoko bazkide egin ala ez. LAB sindikatuko ordezkari baten esanetan planak garrantzia handia du, Roneok etorkizunean hartuko duen bidea finkatuko du eta.

Korporazioak Roneo langileen esku utzi zuenetik, LAB, ELA eta UGT sindikatuetako ordezkariak batzorde bat eratu eta enpresa aurrera ateratzeko gestioak egiten hasi ziren. Batzordeko partaide baten esanetan, azkenaldian eskaintza ugari jaso dute eta horregatik etorkizuna baikortasunez ikusten dute. Salmentei dagokinez,



Lantegia aurrera ateratzeko bidegarritasun plana egiten ari dira.

iazko urtea 94a baino hobea izan zen eta galerak gutxiagotzea lortu zuten. Azken sei hilabeteetako eskari kopurua, adibidez, historikoa izan ei da,

eta datozen bi hilabeteetarako aurrikuspen onak dituzte.

Roneo UCEM-en 132 langile ari dira lanean, eta Roneoko komertzial sailean 37.

Langileen esku 3 pezetaren truke

Roneok diru galera handiak zituela eta, orain dela hilabete batzuk lantegia saltzeko asmoa azaldu zuen UCEM Korporazioak. Horregatik, Holandako talde enpresarial batekin jarri zen harremanetan Korporazioa. Holandako taldeak Roneo ez erostea erabaki zuenez, azaroaren 15ean lantegia langileen esku utziko zuela jakinarazi zuen. Langileen eta Korporazioaren arteko negoziaketan ondoren, abenduaren 29an akzio denak langileen jabetzara pasa ziren. Salmenta simbolikoa, hiru pezetaren truke egin zen, batzordea hiru sindikatuk osatzen dute eta.

Roneok bulegoetako altzariak egiten ditu, eta instalakuntza eta makinaria berriak ditu.



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

AREIXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa

ARRASATE


Tfnoa: 79 98 94

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Aste honetan bukatutzat eman ditu obrak Arrasateko Udalak.

Berriz ere Arrasaten izango du egoitza INEMek

Tren geltoki zaharreko obrak bukatu ondoren, aste honetan bulegoa bertan kokatzeko eskaintza egin dio INEMi Udalak.

Pedro Ustarroz, INEMeko Gipuzkoako Zuzendariaren berbetan, "hasieratik nahi izan dugu berriz ere egoitza Arrasaten edukitzea, eta oraindik ere INEMen asmoa Arrasatera itzultzea da". Zuzendariak adierazi duenez, lokala Udalari alokatuko dio eta horrek hainbat prozedura egitea eskatzen duenez, momentu honetan horretan ari dira.

Ustarrozen esanetan, "eraikinean hainbat neurri hartzea eskatuko diogu Udalari.

Sabotai ekintzak jasan izan ditugu eta horregatik, gutxienez beheko solairuko lehioak blindatuak izan daitezten eta egoitzaren inguruan hesiren bat jartzea eskatuko dugu".

Irailaren bukaeran INEMek herrian zuen egoitzaren aurka sabotai ekintza egin zenetik, INEM berriz ere herrira ez etortzeko arriskua zegoela esan izan da. Gipuzkoako Zuzendariak esan duenez, "egia da inguruko hainbat herritik ere eskaintzak jaso ditugula, baina gure helburua lehenbailehen eskualdera bueltatzea izan da eta Arrasate-ra bada hobe".

Iruzur egin

Arrasateko banketxe batean iruzur egin zuen asteartean 35 urteko gizon batek. Iruzugileak Onceko bi zenbaki eta banda magnetikoa faltsifikatu zituen. Kupoia ostiralekoa zenez eta lau zenbaki saritu jarri zituenez, 100.000 pezeta eman zioten banketxean. Alde egin zuenean konturatu ziren banketxeakoak, saria jaso zuenak iruzur egin zuela.

Abiadura aztertzen

Autoen abiadura aztertzen hasi da Arrasateko Ertzantza.

Behin baino gehiagotan salatu dute guraso batzuk, ikastetxe inguruetatik autoak abiadura handiegian pasatzen direla. Horregatik, radarrarekin abiadura kontrolatzen hasi da Ertzantza. Abiadura gainditzen dutenei isuna ere jarriko zaie.

Zeziaga bukatzeaz

Bukatzeaz daude Zeziaga etxeko berrikuntza lanak. Diputazioaren, Udalaren eta bertan bizi direnen laguntzarekin konpondu da etxearen aurrekaldea.



1996ko urtarriletik aurrera
Kirola egingo duzu
Erretzeari utziko diozu
Zeure etorkizuna prestatuko duzu

INGELES IKASIKO DUT!!

Non? CIMen

Noiz? Urtarrilaren 15etik aurrera.

Nola? Astean 3 orduko ikastaroetan,
oinarrizko mailatik aurreratuenera.

Eta GABONETAKO oparia: matrikula
dohainik izena ematen duten lehenengo
bostentzat.

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorbidea, 4
Tfnoak. 79 01 32-79 65 54
20.500 ARRASATE




*Txatxilipurdik eta Arrasateko Udalak antolatuta **Txikilandia** jolas parkean ezinhobeto pasatzeko aukera izan dute Leintz bailarako neska mutilek.*



Txikilandia sei areatan antolatuta zen eta area bakoitzean era guztietako jolasetan ibili ahal izan ziren umeak, hala nola, zezen mekanikoa, rokodro-

moa, karaokea, ohe elastikoak, puenting-a... Kontuak kontu, egun ahaztezinak igaro zituzten Txikilandia inguratutakoek.

Amnistiaren Aldeko Gestorako porrak badu dagoenako irabazlerik. Jokuan 830.000 pta. zeuden eta hiru arrasatearren eskuetara joan da diru kopuru eder hori. Aste honetan hiru emaitza asmatu behar ziren Athletic 0 - Real 0, Marbella 1 - Alaves 1 eta Osasuna 2 - Badajoz 0. Irabazleak Sokoakoak taldeko 22 lagun, Asier Arizabaleta, Iraultza Iturbe eta bere ama izan dira. Bakoi-tzak 276.000 pta. jaso ditu. Argazkian Sokoakoak taldeko partaide batzuk eta Asier Arizabaleta ageri dira.



Pena handiz baina beharrak bultzatuta Xabier Zubizarreta alkateak jubilatuta egin du more koloreko Dyane 6a. Bigarren eskukoia erosi zuen horrenbeste esames eman duen autoa orain 8 urte Xabierrek. Trotean herritik ibiltzeko erosi zuen eta hori egin diola esan behar, baina nahikoa lan egindako autoa zela pentsatu eta desguazera eraman zuen. Goian bego Dyane 6a!



**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

BERGARA PIEL

BERGARA PIELen beherapenak hasten dira.

Taila sueltoak prezio sinestezinetan.
Ezazu aukera hau pasatzen utzi, Espaloian gaude.

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Urtarrilaren 5ean Melxor, Gaspar eta Baltasar erregeak etorri ziren Arrasatera dozenaka kantari, antortxero eta tanborrerorekin batera. Kaleak jendez gainezka egon ziren eta eskutitz ugari jaso zuten Orientetik etorritako erregeek. Herri guztiari bira eman eta gero, Monterronen kokatutako jaioztzara joan ziren adozioa egitera. Aurten benetako familia batek bete du Jose, Maria eta Jesus haurtxoaren papera.



IZEN PROPIOAK

● **Luis Fernandez Ostolaza**, 29 urteko eibartarrak Tene Mujika saria irabazi du "Kontaktua" ipuinarekin. ETaren munduan dago girotuta ipuina. Saria ez da Luis Fernandezek irabazten duen lehena, duela 6 urte Debako Udalak antolatutako literatur sari bat jaso zuen eta. Orain hilabete batzuk "Tetris" liburua kaleratu zuen berak egindako hainbat artikuloen bilketa eginez. Tené Mujika saria eskuratzegatik 150.000 pta. jasoko ditu Luis Fernandez kazetariak. Luis Arrasate Presseko kazetaria izan zen eta une honetan Euskaldunon Egunkariak domeketan kaleratzen duen gehigarriaren arduraduna da.

● **Diara**, Aretxabaletan dagoen diseinu enpresak "Zilarrezko delta 1995" saria irabazi du. Saria Bartzelonako Adi Fad entitateak banatzen du. Diarakoek hiru diseinu aurkeztu zituzten: urrutiko managailua, garbigailu bat eta mekanizazio zentru bat. Saria EDESA garbigailuaren diseinuak jaso du. Diseinua Diarak egin du eta Fagorrek merkaturatuko du.



CIM Juniorrek antolatutako "Gabon Txartelen Txapelketa" egin zen abenduaren bukaeran. Irabazleak Maialen Lopez,

Ane Zabala, Naia Bailez, Eneritz Zubizarreta, Arantzazu Iriarte, Igor Olalde, Jon Errasti, Tamara Canales eta Maria

Uriarte izan ziren. Argazkian lehiaketako protagonistak daude senitarte eta CIMeko irakasleekin batera.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

● Txitxinpe ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Erakusketa berria.



Konfindantzako zerbitzua.



Proiektuak zure neurrira.



Muntaiaren akabera ezinhobea.

Zure ametsetako sukaldea lortzeko lan-talde profesionala aurkituko duzu IKER Sukaldeetan.

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42

FAGOR 

● *Pablo Garcia*

Umea tratu txarretatik babesten

Gaur egungo gizartean umeak ondo zainduta eta babestuta daudela iruditu arren, oraindik bada tratu txarrik jasotzen duen haurrik. Arrasateko ikastetxeen eskariz eta Udalaren laguntzarekin, tratu txarren inguruko kanpaina ari da burutzen herrian. Avaineko partaideek, tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako euskal elkarteak, gai horren inguruko hitzaldiak eman diete ikastetxeetako irakasleei.

– Gaur egun umeek jasaten dituzte tratu txarrak?

– Bai, jakina. Lehen tratu txarren kasuak isildu egiten ziren eta gaur egun, salatu egiten direnez kasu gehiago ezagutzen da. Orain gizartean sentsibilizazio gehiago dago eta kasu larriak, behintzat, ezagutu egiten dira.

– Umeari ipurdian ematea ez da tratu txarra izango.

– Ahalegindu behar gara umea zaplasteko barik hezitzen, baina momentu batean ipurdiko bat ematea ez da tratu txarra.


– Orduan zer da?

– Bi tratu txar moeta daude, aktiboa eta utzikeria. Aktiboa haurraren aurka egiten den eraso litzateke eta ondorioz, haurrak kalte fisiko, sexual edo mentalak izaten ditu. Tratu txar horiek kalte handiak uzten dituzte eta haurraren osasun psikikoa eta fisikoa arriskuan jartzen da. utzikeria haurra ez zaintzea litzateke, hau da, medikura ez eramatea, behar bezala ez elikatzea...

– Zerk bultzatzen ditu gurasoak umeari tratu txarrak ematera?

– Gaur egun arrisku faktoreei buruz hitzegiten da eta zenbat eta faktore gehiago egon, tratu txarrak jasotzeko arrisku gehiago egongo da. Gurasoek, adibidez, euren haurtzarotan tratu txarrak jaso bazituzten euren haurrek ere tratu txarrak jasotzeko arriskua izan dezakete. Familia-ko arazoek, eragin handia dute eta bikotearen arteko arazoek ere bai.

Horrez gain, umeekin zerkusua duten faktoreak daude. Arrisku gehiago izaten dute ume oso aktiboek edo askotan gaisotu eta euren gainean egotea eskatzen dutenek. Horrek ez du esan nahi ume aktibo guztiek tratu txarrak jasotzen dituztenik, baina bes-



te faktore batzuk tarteko, umea horrelakoa bada arrisku gehiago dago.

Bestalde, gizarteak zer pentsatzen duen ere garrantzitsua da. Lehen ume bati zaplasteko bat ematea ondo ikusita zegoen baina gaur egun ez da horrela.

– Zelan igarri ume batek tratu txarrak jasotzen dituela?

– Batetik adierazle fisikoak izaten dira: kolpeak, zauriak, erredurak, umea gaizki elikatuta egotea... bestetik adierazle psikikoak daude: eskolan errendimendu baxua, agresibitatea eta normalean harremanetarako arazoak izaten dituzte.

Susmoren bat badago, lehenbailehen egoera horren berri eman behar da eta horrek ez du esan nahi salatu egin behar denik. Gizar-

te zerbitzuak jakinaren gainean jarri behar dira eta ondoren, horiek ikertuko dute umeak tratu txarrak jasaten dituen ala ez.

– Gipuzkoan kasu asko egoten dira?

– Iaz Gipuzkoako Diputazioko zerbitzuan 131 kasu berri jakinarazi ziren, baina errealitatea hiru bider handiagoa da.

– Avainek zer eskaintzen du?

– Avainen helburua arduraren duenak lana ondo egitea da eta horregatik, sentsibilizazioan egiten du lan eta aholkularitza ere eskaintzen du. Gutxi gorabehera hori da Arrasaten egin duguna. Arrasateko Udalaren eskariz, ikastetxeetako irakasleei tratu txarren inguruko hitzaldiak eman dizkiegu. Nire ustez, Arrasateko Udala zoriondu behar da tratu txarren gainean burutzen ari den kanpainarengatik. Horrelako kanpainekin kasu gehiago ezagutuko dira Arrasaten.


● **“Iaz Gipuzkoako Diputazioko zerbitzuan 131 kasu berri jakinarazi ziren, baina errealitatea hiru bider handiagoa da”**

Gripe izurritea gure artean

Beñardo Kortabarria

Izurritea. Ezin beste izendapenik eman udazken itxurako negu honetako gripe erasoari. Lanegietan makina bat baja, ikastetxeetan aulki ugari hutsik, sendagileen kontsultak topera, farmazietan pozik eskuak igurtziz.... Ohi baino indar handiagoz erasotu ei du aurtengo gripeak, eta kalean entzuten da sekula baino jende gehiago harrapatu duela. Egia ote da hori guztia, edo unean uneko uste kolektiboren bat?

Inork ez du ukatzen izurrite tipora eraso duenik gripeak bolada honetan, ezta sendagileek ere. Gainera ez da bakarrik hemengo kontua, Europa osoan zabaldua dago eta aurtengo gripearen eragina. Ez dago izutu beharrik, ez da nobedadea horren eraso bortitza, normalean eragina arin samarra izaten bada ere. Oraingo gripe hau Europa osoan zabaldu den bezala, mundu osoan zehar zabaldu diren gripe izurriteren bat edo beste egon da historian zehar. Ospetsua 1918ko izurritea izan zen, orduan hamar hamabi milioi pertsona hilobiratu behar izan zituztela



Gripeak jende iladak eragin ditu osasun zerbitzuetan.

diote. 1957ko asiar gripearekin ere, ez hainbeste, baina jende ugari hil zen, eta 1968an azken honen antzeko bat agertu zen, mundu osokoa, Hong Kong izenez ezagutu zena. Argi dago bada, noiz behinika olatu erraldoi bat balitz bezala agertzen dela gripea.

INFLUENZA A BIRUSA

Denboran hain atzera egin beharrik ez dago egungo gripearen antzerako ondorioak

ekarri zituen batekin topo egiteko, hiru urte nahikoa dira. "Oraindik ez dauzkagu datu zehatzak eta hortaz ez dakit gehiago edo gutxiago, baina orain hiru urte ere gripe kasu ugari egon zen, gertatzen da jendeari horrelako gauzak berehala ahazten zaizkiola". Esther Auzmendiren hitzak ziren aurrekoak, Arrasateko anbulategiko sendagileetarik batenak. Influenza A ize-neko birusa ei da aurtengo gri-

pe kasu gehien eragilea, orain hiru urteko bera baina aldatua. Gripearen birusak oso aldakorak dira, eta aldakortasun horretan oinarritzen da gripea ahalik eta gehien hedatzeko. Ezin berarekin behin betirako bukatu, hurrengo batean beste itxura bategaz azalduko da. Ziklikoa beraz, gripearen birusa. "Bi edo hiru urteko zikloa izaten dute gripearen birusek. Orain hiru urtekoa oso antzerakoa zen. Bakterien aurka botikak dauden moduan, birusen aurka ez dago ezer, txertoa besterik ez".

TXERTOAREKIN HOBETO

Txertorik hartu ez zutenak dira, hain zuzen, negu honetako gripearen biktima ugarietak, gazteak batez ere, 1918ko gripe izurritean bezala. Adineko jendeak edo arrisku talderen baten barruan daudenak, salbuespenak salbuespen, dira ondoen erantzuten ari direnak, txertoa hartu zutenak jakina. Txertoa ematea, azkenean, ahuldutako edo hildako birusak sartzea besterik ez da. Txertoarekin indar gutxiko birusak sartzen dira, gorputzak aurre egin eta hurrengoan, benetakoak datozenean, ezagutu ditzan. Arrisku aldetik begiratuta, txertoa hartu edo ez hartu, gripearen birusaren menpean erortzeko aukera berdina dago, baina txertatua




Behar bezala zaindu eta gripeak atzera egiten ez badu ez da arraroa anbulategiko bidea hartu behar izatea.

egonez gero askoz ere eragin txikiagoa izango du birusak, gorputzak dagoeneko ezagutzen duelako eta bada-kielako nola egin aurre. Zentzu horretan, gripearen aurkako txertoaren taulak agerian uzten du azkenaldian txertatuen kopuruan gertatu den gorakada. Badirudi bada txertoaren alde egin diren kanpaina desberdinen eraginez, jendea txertoa jartzeko ohitura hartzen ari dela. Datuak horren adierazgarri.

Eta bere garaian txertorik hartu ez zutenek? Horiek dira ba kristonak eta bi pasatzen ari direnak, gozotik ez du eta ezer hain ospetsu bihurtuko den Influenza A birusaren eraginez harrapatutako gripeak. Birusok aidean zabaltzen dira, txistu-tanta letxe, doministiku egitean edo hitzegiterakoan. Berehala aurkitzen dute egonlekuren bat, ahoan, eztarrian, sudurrean, biriketetan... eta hortxe egongo da gainera gorputzari berezko sendotasunak huts

Gripearen aurkako txertoa Arrasaten			
	-65 urte	+65 urte	Guztira
1992	737	1.897	2.634
1993	768	1.924	2.692
1994	784	1.953	2.737
1995	793	2.085	2.878



egin artean, gorputza ahul aurkitu artean. Orduan egiten du eraso.

EZAUGARRIAK ETA ERREMEDIO DESBERDINAK

Birus honen sintomatologia oso arrunta da: arnasa bideari ekiten dio lehenik, sudurretik hasi, eztarritik pasa eztula sortuz eta birikak harrapatu arte. Buruko minak hasten dira ondoren, gorputzeko hotzikarak, hezurretako minak, giharretakoak... eta termometroa hartuz gero kalentura, handi samarra kasu askotan. Badu beste berezitasun bat oraingo gripe honek, askori tripetara ere egin die eraso, beherakoak eta nahie-

za sortuz.

Bizitza sanoa egin, osasuntsua, tabakoa moduko gai kutsatzaileak ekidin, denetarik jan eta behar beste atsedean hartzea izango litzateke griperik ez hartzeko erreze-tarik onena. Baina, behin harrapatuz gero zer? Medikuntza tradizionalak argi dio, gripearen aurkako tratamendurik onena, behar litzatekeen beste denbora ohean, atsedentsu egotea da. Zailak horrelako erremedioak gaur egungo bizi-jiran. Behar bada horregatik sendagileek C bitamina hartzea gomendatzen dute, toki itxietan ez egotea, gai kutsatzailerik ez kontsumitzea eta ahal den beste atsedean hartzea. Gauza horiek


guztiak egin eta gripeak ez badu aldegiten, jakina, bisita anbulategia.

Ohiko medikuntzaren botiketarik urrun bizi nahi dutenak ere badira, botiken eta anbulategien aurrean beste proposamen batzuk egiten dituztenak, naturistak alegia. Ohiko medikuntzak bezala, prebentzioari ematen dio garrantzia naturismoak, haragirik ez jan, ahalik eta gai naturalenak erabili eta ur hotza eta beroa tartekatuz bainatzea, beti hotzarekin bukatuz. Horrelako bizitza eginda, birusak gorputza menpean hartuz gero, hiru erremedio ezartzen ditu naturismoak: ohea, laxanteak eta likido ugari edatea.

Tradiziozkoa zein moderno izan edo naturista izan, medikuntza mota gehienak gauza batean datoz bat gripearri erremedioa ezartzerakoan: atsedena. Horretarako, baina, bizitzeko era aldatu behar, stressaren aldeko apostua ala lasaitasunaren aldekoa?

Carlus Croves jokalaria amerikarra, hirugarrenean bai?

Carlus Croves 25 urteko Atlantako jokalaria Urbina Maltzagako hirugarren amerikarra da. Joan zen astean fitxatu zuten 2 metro altuerako pibota. Carlus Crovesek ACB-ko Leon taldean jokatu zuen iaz eta aurten Turkiako talde batekin hasi du denboraldia baina hainbat arazo izan eta gero, taldea uztea erabaki eta Urbina Maltzagako eskaintza onartu du. Carlus 10 urtekin hasi zen saskibaloian jokatzeko eta Estatu Batuetako Unibertsitateen arteko ligan jokatu zuen University of Tennessee eta San Diego State taldeen koloreak defendituz. Leon taldearekin jokatu zuenean maila bikaina erakutsi zuen, partidua bakoitzean batzuek beste 15 puntu eta 8 errebote lortuz. Aurten Arrasateko taldean marka hori hautsi nahi du eta horregatik hasi da gogor entrenatzen. Urbina Maltzagako amerikar berriak Arrasateko taldean jokatzeko gaitz, hainbat partidutan Taugres Basconiarekin ere jokatu du. Bi taldeek sinatuta duten



Carlus Croves, saskibaloitadetik pasatzen den hirugarren amerikarra da. akordioa dela eta, Gasteizko taldeak beharra duenean amerikarra eraman ahal izango du

baina bi taldeek egun berean jokatzeko badute Arrasaten geratuko da. Carlus Crovesek astelehenean pasa zuen medikuaren azterketa, Alberto Garai kirol sendagilearen kontsultan. Froga desberdinak egin ondoren, sasoian dagoela esan daiteke.

Dena dela Croves ez da Urbina maltzaga taldearen azken fitxaketa. Aste honetan Jose Luis Ortun 18 urteko gaztea fitxatu dute Diputación de Alava taldeak. Ortun gasteiztarra 1.98ko altuera du eta hegalekoa da.

Asteburuko ihardunaldiari dagokionez, Urbina Maltzagak CB Leon taldearen bisita jasoko du domekan arratsaldeko 6etan Iturripen. CB Leon 7. tokian dago sailkapenean 28 punturekin. Neurketa samurra izango ez den arren, Samaniegoren mutilek ezingo dute amore eman eta garaipenaren bila kantxaratuko dira.

Asteburuan hasiko da urtea Zaldibarren

Gabonetako atsedena eta gero, berriro jarriko da abian Zaldibar txapelketa. Asteburuan 11. ihardunaldia egongo da jokuan Zaldibar eta Iturripeko kantxetan.

Zazpi asteburu falta dira lehen fasea bukatzeko eta tarte horretan txapelketan jarraitzeko aukera duten taldeek ezingo dira lokartu duten onena emateko. Bes-

talde esan behar da, Federazioak antolatutako futbito txapelketan hartu zuela parte Zaldibarko ordezkariak eta txapeladunorde geratu dela Ondarrun kon-

tra 4 eta 2 galdu ondoren. Golegileak Jon Onandia eta Xabi Garcia izan ziren. Gainera David Zaitegi atezainaren lana azpimarratu behar da.

LARUNBATA 13

Zaldibar

- 8.50 Jotakabau - Gaztetxokoa
- 10.00 Exc Lete - Artzankos Udalaiz
- 11.00 Bukanak - Alealee
- 12.00 Baneuko - Petroleros
- 13.00 Sortu Informatika - D. A Iritz
- 14.00 Ojo Avisore - Kirten Tropel
- 15.00 Argi Ibili - Gualtrapas
- 16.00 Potrosorri - Ganbelas
- 17.00 Fosforos - Fraguél Gol
- 18.00 Const Fercon - Borrock Roll
- 19.00 Aurrera Bolie - Danok Lagun

Iturripe A

- 11.00 Los heredia - Kopyprest

- 12.00 Pub People - Kriskibalda
- 13.00 Orlando Piratas - Frantziskanner
- 14.00 Anbotoste - Irati STS
- 15.00 Zotz Motz - Perrahotsa
- 16.00 Arrasate Kirolak - Kamasutra
- 17.00 Insert Coin - Arrasate Zoo
- 18.00 AC Surcos - DKB
- 19.00 No Comment - Lautherbrunen

Iturripe B

- 13.00 Resakas - Leya
- 14.00 Berango Sukaldeak - 6ª proiektua
- 15.00 HMKL - Los Dimy
- 16.00 Kakajauri - Totem
- 17.00 Elisabeth - Nuevo taberna
- 18.00 Okoretégi Taberna - Las Dalton

- 19.00 Betrayer - A ti que te importa

IGANDEA 14

Zaldibar

- 8.50 Altza Porru - Aizpun Bila
- 10.00 Sokoakoak - Uglys Txinato
- 11.00 Cartanajes Igamo - MSM Ingenier
- 12.00 Txeyenex - Lorategi
- 13.00 Cerv Leintz - Koka Juniors

Iturripe A

- 11.00 Txarokis - Trikiti
- 12.00 Hirei - Adelaida haizea
- 13.00 Pepelus - Ke oxtias

LABURRAK

**Eskubaloikoek
Zarautz nor baino
nor**

Eskubaloit taldekoek Zarautzen kontra jokatu dute urteko lehen partidua zapatuan. Neurketa arratsaldeko 7etan hasiko da Zarautzko kiroldegian. Arrasateko taldeak denboraldia hasi denez, ez du partidurik irabazi eta bi punturekin sailkapeneko azken tokian dago. Zarautzarrak sailkapeneko 3. tokian daude 11 punturekin.

**3. mailako taldea
eta emakumeak
Atxabalpen**

3. mailako Mondrak bigarren bueltako lehen partidua jokatu du Amorebietaren aurka domekan Atxabalpen. Partidua arratsaldeko 3.45etan jokatu da. Emakumeek bestalde, Alde Zaharra taldearen bisita jasoko dute zapatuan Atxabalpen. Itxuraz irabazteko moduko partidua da.



Txindokiraino joan ziren aurreko irteeran.

**Izarraitz mendira kirol
proiektuko neska mutilak**

Arrasate kirol proiektukoek Besaide elkartearekin batera mendi irteera antolatu dute domekarako. 5. eta 6. mailako neska mutilentzat dago zuzenduta irteera. Igozko duten mendia 1.026 metroko Izarraitz izango da. Autobusak Garibaitik irteeratu du goizeko 8etan; itzule-

ra berriz, 2ak aldera.

Eraman beharrekoa motxila, hamarretakoa, kantin-plora, kanguroa, beste niki bat aldatzeko beharra badago, eskularruak eta mendiko botak.


Bestalde zapatuan kirol txapelketetan parte hartzeko aukera izango dute neska

mutilak. Multikirolean ari direnek eskubaloiko txapelketetan hartu zuten parte ikasturte hasieran, gero atletismoko frogak izan zituzten eta asteburu honetan futbitoiko neurketekin hasiko dira. Gainontzekoek ohiko txapelketetan egin beharko dute lehian.

**Eskuz binakako San Juan txapelketa
abian jarriko da**

Santamas pilota txapelketa bukatu ondoren, datorren zapatuan eskuz binakako San Juan txapelketa hasiko da. Txapelketa hiru mailatan banatu da. Alebinetan 26 bikotek hartuko dute parte, infantiletan 12k eta promesetan 14 izango dira lehian. Lehen norgehiagokak zapatuan jokatuiko dira Iturripen goizeko 10etatik aurrera.

Era berean esan behar da Aitor Ormatxea eta Aitor Jauregik osatutako bikotea txapeladuna izan zela Deba Arroa txapelketan.



Alebinak

Ugarte, Ugartetxe - Aranzeta, Mendieta.
Alzizar, Perez - Rodriguez I, Rodriguez II
Arriaren, Zuazua - Agirezabal, Urkia

Infantiletan

Zubillaga, Etxeandia - Gimenez, Ormaetxea
Ugartetxe, Dominguez II - Blanco I, Jauregi

Promesak

Alzelai, Etxebeste - Mancebo - Belategi
Dominguez I, Aroztegi - Miranda II, Lizarralde
Lazkano, Nafarrate - Miranda I, Sanjulian

Ekon musika taldea

Maketa berriarekin irabazteko itxaropenaz

Yagok, Jonek, Xabierrek, Ibanek eta Iñigok osatzen dute "Ekon" musika talde arrasatearra. Bost kantuko maketa grabatu dute orain gutxi "Shot!" estudioan eta Egineko maketa lehiaketara aurkeztu dute. Honelako lehiaketako epaimahaiengan konfiantza handirik ez duten arren, irabazteko itxaropenik ez dute galdu.

— Nola sortu zenuten taldea?

— Xabier: Duela bi urte elkartu ginen Jon eta biok eta ondoren, gainontzeko partaideak joan dira sartuz. Denbora asko egon gara baxu eta bokalistarik gabe eta orain Iñigo eta Iban taldean sartu dira.

— Zeresan nahi du "Ekon" izenak?

— Jon: Ez du ezer esan nahi, jendeak taldea bere izenarekin identifikatzea ez zai- gulako gustatzen jarri genion. Talde askok oso izen arraroa edukitzen du eta jendeak izen horrekin identifikatzen du musika ere. Hori ez gertatzeko izen bat asmatu genuen eta izen horrek esanahirik ez duenez, jendeak ez gaitu musika estilo batekin identifikatzen.

— Ze musika mota egiten duzue?

— Jon: Ez gara estilo bakar batean geratzen, bakoitzak bere gustoa dauzka. "Heavy-Trash" estiloko melodiak sortzen ditugu baina



horretara mugatu barik.

— Iñigo: Entsaioetan bakoitzari ateratzen zaiona jo, entzun eta gero moldatu egiten ditugu zati desberdinak.

— Ze gai jorratzen dituzue zuen abestietan?

— Xabier: Gai desberdinak. Klean ikusten ditugun gauzak, bakoitzak izaten dituen esperientziei buruzko istorioak, politikari buruzkoak...

— Amodio istoriorik?

— Jon: Momentuz ez dugu amodioari buruzko abestirik egin baina abian dago hori ere!

— Talde baten parte hartzen duzuen lehen aldia da denontzat?

— Iñigo: Ez, nik Herio-

tza taldean jotzen dut eta bi disko ere grabatu ditut talde horrekin. Orain beste disko bat grabatu nahi dugu baina proiektu bat baino ez da eta bitartean Ekon taldean jotzen dut. Bi aste dira talde hone- tan sartu nintzela.

Jon eta Xabier: Guk "Brutal Melody" taldean ere jotzen dugu batzutan, norbait falta zaienean.

— Maketa bat grabatu berri duzue "Shot" estudioan. Zein da helburua?

— Xabier: Eginek antolatzen duen lehiaketa batean aurkezteko grabatu genuen. Maketa batzuk tabernetan banatuko ditugu baina ez daukagu saltzen hasteko asmo- rik.

— Irabazteko itxaropenik bai?

— Jon: 106 maketa aurkeztu dira, baina ez dugu esperantza galtzen. Epaimahaiak 10 talde aukeratuko ditu eta talde horiek kontzertu bat eskainiko dute jendaurrean. Azken erabakia publikoarena izango da.

— Iñigo: Txarrena zera da; denok dakigula lehiaketa horietan entxufatuak egoten direla beti. Dena dela, ni taldean sartu berria naiz eta ez dut maketaren grabaketan parte hartu baina entzun dut eta oso ondo dagoela iruditu zait, pisua dauka.

— Zein da saria?

— Jon: Milioi bat pezeta- koa.

"Gai desberdinak jorratzen ditugu, klean ikusitakoak, bakoitzak izaten dituen esperientziei buruzko istorioak, politikari buruzkoak..."

Liburu, disko eta bideo azoka, arrakastatsua izan da

Abenduaren 21etik 24ra Euskal Liburu, Disko eta Bideo azoka zabaldu zuen Txatxilipurdik Sebero Altubeko Frantsizkotarren lokalean 11. edizioa zen aurtengoa.

Euskal Kultura bultzatu eta euskaldunoi liburu, musika eta pelikula nahiz dokumental desberdinak eskaintzeko, helburuak ezinhobeto bete zituen azokak. Xabin Larak, azokako arduradunak adierazi duenez, aurrekoarekin konparatuz,

% 50ean igo da salmenta eta adin guztietako jendearen presentzia nabaritu da.

Salmentak kopurutan

Txatxilipurdik jarritako azokan 660 liburu, 225 disko eta 30 bideo saldu ziren. Liburuaren artean, umeendako ipuinak izan ziren arrakastatsuenak. Nagusiendako literaturan berriz, Joxean Sagastizabalen "Kutsidazu bidea, Ixabel" elaberriak lortu zuen salmentarik

handiena. Horrez gain, idazle klasikoaren 12 liburuskasorta eta Olentzeroren postalak asko saldu ziren, 200tik gora.

Musikari dagokionez, Benito Lertxundiren "Hunkidurak" disko sortak arrakasta handia izan zuen musikazaleen artean, baita Oskorriren azkenak ere, "Lan da lan". "Takolo, Pirrux eta Porrotx" eta "Txirri, Mirri eta Txiribiton" pailazoen diskok ere asko saldu ziren. Gazteen artean

Bittor Aiape eta S.A. taldeen azken lanek sekulako onespena izan zuten, Sarasua anaien "Fauna Txiki Bat" eta Gozategi taldearen "Gozategiz Blai" diskek bezala.

Azokaren bidez lortutako irabaziak honako hauek izan ziren: Musikan 400.000 pta.; literaturan 525.000 eta bideoetan 35.000. Dena dela, jasotako dirua azokaren gastuak ordaintzeko erabiliko du elkar-teak.

Gaztetxearen merkatua

80.000 ptako irabaziak lortu ditu Arrasateko Gaztetxeak abenduaren 21tik 24ra kalistroetan eta urtaririlaren 2tik 5era Frantsizkotarren Sebero Altubeko lokalean jarri zuen Merkatu Alternatiboarekin. Iazkoaren arrakasta ikusita, esperientzia errepikatzea erabaki zuten eta arduradunek adierazi dutenez, jende asko hurbildu zen saltokietara. Irabazitako diru hori oraindik erabaki gabe dagoen atzeratuen elkarte bati emango diote eta soberan geratu ziren jostailu eta arropak ordea, Caritas era-

kundera bidali dituzte. Merkatu bitxi honetan denetarik egon zen salgai, hala nola, arropak, bitxiak, diskoak, eta jostailuak.

Dena dela, arropak eta bar biltzeko kalean jarri zituzten iragarkiei dagokionez, ez zela erantzun ona egon aipatu dute. Bilketa leku eta ordu konkretu batzuk jarri zituzten jendeak arropak bertan utzi zitzaizkion baina oso gauza gutxi bildu zuten iragarkien bidez. Horregatik, merkatuan salgai egon diren gauza ia guztiak, arduradunek eraman behar izan zituzten.



ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehoiak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



Gida

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz-Gatzaga

96

ARKO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

Zure telefonoaren lagunik onena!

Ale gehiago behar izanez gero, ARKOn aurkituko dituzu. Tfnoa: 77 08 15.

Argitaratu da "Gida 96", profesional eta zerbitzu ezberdinen informazio osatuena

Dagoeneko eskuartean izango duzue ARKOk hirugarren aldiz kaleratu duen Gida, 96. urtekoa jakina, gaur arratsaldean zen banatzekoa eta Arrasate Pressekin batera. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako edozein denda edo zerbitzuko telefonoa esku-eskura izateko aukera dohainik. Izan ere, ARKOk Gida 96an, beste herrietan ez bezala, zerbitzu eta denda guztien zerrenda agertzen da, baita publiziterik egiten ez dutenen izena ere.

Behar izanez gero eskatu

Hamar mila ale kaleratu dira eta asmoa etxez etxe banatzekoa da. Hala ere, baliteke norbaitek ez jasotzea, edo beste norbaiti emateko besteren bat behar izatea. Kasu horretan ez dago inolako arazorik, ARKOn egoitzara etorri, eskatu eta jasotzea besterik ez da egin behar Gidaren liburuska bat gehiago eramateko.



Denda eta zerbitzuetako telefono zenbakiez gain, hainbat telefono interesgarri agertzen da Gidan, informazio orokorra, autobusen ordutegi berria erabili nahi duenarentzat eta herri bakoitzeko bibliografia. Eta hori ez da guztia, irakurleen eskariei erantzunez, orain bi urte bezala, liburuskaren atzealdean Agenda berreskuratu da eta

aurtengo Gidan. Era horretan, bakoitzak gehien erabiltzen dituen telefonoen zerrenda ere Gidan bertan jarri ahal izango du. Une berean presazko zerbitzu apuntatzeko beharra izanez gero ez dago arazorik ere, agendaren ondoren horretan erabil daitezkeen orrialde zuri batzuk badaude eta.

Lau hilabeteko lanaren

ondorioa da Gida 96a. Irailan ekin zioten lanari Alazne Leturiagak eta Kaitin Allendek, dendariak bisitatu, telefonoz deitu eta Gidaren zerbitzua eskainiz. Haien lana bukatuta, zuzenketatzeko batzuk egin ziren ARKOn bertan. Jasone Mendizabal eta Alberto Garroren eskuetara pasatu zen ondoren Gida, ardura hasiera hasieratik biena izan bada ere. Goitik behera begiratu, orraztu, detaileak zaindu eta Goio Aranari eman zioten honek maketa zezan. Frogak egin eta itxura berrituarekin itzuli zien Gida Goiok Jasone eta Albertori. Berrito ere, goitik behera begiratu beharra. Azken ikutuak eman, zuzenketaren bat edo beste eta inprentara. Han pasa ditu azken egunak Gidak, zure eskuartera iritsi artean irakurle.

Orain hasten da zure lana, Gida 96ari zukua atera eta aprobeztatzea. On egin, eta ez ahaztu Gidarendako tokirik egokiena telefonoaren ondoan dago!




Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



Lourdesa erromesaldian joan, Amabirjinaren kobazulora bisita egin, bedinkatutako ura edan eta etxekoentzat ekarri, meza entzun, kandela jarri... zenbat arrasatearrek ez ote du horrelakorik egin. Aspaldikoa da ohitura, baina oraindik ere egiten dena, urtero egoten da eta erromesaldia.

Hourdes inguruan dago aterata argazkia, bertan, frantziar batzuk tartean, zazpi

arrasatear ageri dira. 1924. urtea zen eta arrasatearrak erromesaldian joanak ziren Amabirjinaren aurrean otoitz egitera. Han zeudela, auto batean sartu eta inguruak ikusteko aukera aprobetxatu zuten. Argazkian agertzen diren arrasatearrak honako hauek dira: lehen lerroan, txoferraren ondoan, **Valeriano Martinez**; bigarren lerroan, txapela daraman mutikoaren ondo-

koa, **Angel Arregi "Axeri"**; hirugarren lerroan, **Tomas Atxa** eta bere emaztea, euren atzean, erdi-zutituta, gizon lodikotea, **Zumaeta**; azken lerroan, berriz, hiru arrasatear, **Jose Maria Zarraoa**, **Guillermo Lasagabaster** eta **Prudentzio Lazkano**. Argi dagoenez, orduko autoak gaur egungoak baino jende gehiago eramateko gaitasuna zeukaten.

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Gurutze Telleria

"Goiztiri" opari dendakoa

- Gizendu zara Gabonetan? Ez.
- Non ospatu dituzu jaiak? Etxean, Elgetan.
- Zer ekarri dizu Olentzerok? Pijama bat eta lepokoa.
- Zer moduzko urtea izan da 95a? Nahiko ona.
- Zer eskatu diozu 96ari? 95a bezain ona izatea gutxienez.
- Gabon Zahar gauean kalera atera zinen? Bai baina Azkoitian. Goizeko 6ak arte ibili nintzen kalean.
- Opari asko egin dituzu zuk? Bai, dexente.
- Gabonetan zer saldu duzu gehien dendan? Portzelanak.
- Makilatzen zara? Ez.
- Ezkonduta zaude? Bai.
- Urrea ala zilarra; zer nahiago? Urrea.
- Zure hobbyak? Etxean dekorazio aldizkariak irakurtzen



bakarrik ibiltzeari.

- Zeozer kolekzionatzen duzu? Ez.
- Ikusi duzun azken filmea? Ez dakit, ez naiz zinera joaten.
- Hartu duzu griperik aurten? Ez.
- Ze plater prestatzen duzu ondoen? Oso sukaldari txarra naiz, benetan... baina patata tortila ondo ateratzen zait.
- Non bititza gustatuko litzaizuke? Donostian.
- Dutexan abesten duzu? Ez.
- Nori idatzi zenion azken gutuna? Granadako lagun bati.
- Beldurtia zara? Bai.
- Zeri diozu beldurra? Gauean kalean

Animalirik baduzu etxean? Bai, baserrian bizi naiz eta.

Zein da denda daukazu gauzarik garestiena? Brontzeko figurak. 200.000 pezetatan.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIENDO
 OTALORA
 RUIZ**




Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ESAERA •

"Denek nahi dute jakinduriaren jabe izan, baina gutxi dira prezioa ordaintzeko prest daudenak"

SOCRATES

• JEROGLIFIKOA •



Aitak seme-alabei uzten diena.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10		11				
12	13			14	15	
16						
17		18				19
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Letoniako hiriburua. 5. Futboleko baloia atean sartzea. 8. Garaile. 10. Valladolideko ibilgailuetan. 11. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 12. Irudiak sortzeko ahalmena. 16. (Ald.) Sinesten duena. 17. Italiako telebista katea. 18. Kataluniako herria. 20. Gezi orpoko luma-multzoa.

Bertikalak 1. Iñaki, 23 urteko margolari ezaguna. 2. Inprentatze-lana. 3. Galioa. 4. Apaiz. 5. GOIZeko kontsonanteak. 6. (Ald.) Esnatu aurretik. 7. Gorabeherarik ez duena. 9. Ez ona eta ez txarra. 13. (Ald.) Pisatzeko tresna. 14. Hamar aldiz ehun. 15. (Ald.) Jakoben 11. semea. 19. Infusio mota.

• HOROSKOPOA •

Aries Etorbizuna beltz ikusten hasi zara. Sintoma txarra.

Taurus Bikotea ordenagailu bidez aurkitzen hasi ei zara.

Gemini Guinness liburuan sartzeko aukera handiak dituzu.

Cancer Euria egiten duenean oso triste jartzen zara.

Leo Bi urte barru burusoila izango zara. Orraztu beharrik ez!

Virgo Telebista ikusten hasi eta lo hartu. Biak batera egiten dituzu.

Libra Aitona izaten zarenean, kontu kontari galanta izango zara.

Scorpio Arrakasta izaten dute zure komeriek. Zergatik ote da?

Sagitaris Mahaian jarri eta leher-tu arte jan eta edan aritzen zara.


Capricorn Oporretan oso gustora ibiltzen zara baina itzulitakoan...

Aquarius Loterian milioi pare bat tokatuko zaizkizu. Noiz? Ez dakit.

Piscis Ba al duzu munduan gertatzen denaren berri?

Etxe-Aundi

Torreauro, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Anna de Codorniu

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

“Udalaitz-Azpi” Elkartean saioan

Udala auzoan dagoen “Udalaitz-Azpi” elkarteak aurkeztuko dizue ATBk datorren ostegunean Elkartean saioan. Gabonetan bete ditu auzo giroko elkarte honek 19 urte. 24 bazkide ditu orain.

Elkarte honen berezitasunen artean, bazkari eta abarretarako gehienbat baserrietako produktuak erabiltzen ditu. Esan behar da Besaide Egunean eta auzoko jaietan luntxa prestatzen dutela beti.

“Udalaitz-Azpi”ko sukaldariak, Zapak, barraskiloak prestatuko ditu datorren osteguneko programan.



KOMIKIA



Ixe-ixa komiki taldea. (R.I.P.)



12 Ostirala

9.30etan
Astebete

15 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

16 Asteartea

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

17 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

18 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Elkartean” saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta.
Elkatea: Udalaitz Azpi

19 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxe gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxe ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

S. CARBASCAL

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak

Fabrikaren erakusketa

GIPUZKOA ETORBIDEA. 6-1A

SOLUZIOAK

Abizena. Jerojifikoa: 19. Te. 9. Adimn. 13. Usp. 14. mila. 15. Esq. Ga. 4. Abade. 5. Gz. 6. Ol. 7. Leun. **Bertalariak:** 1. Riviere, 2. Irtaran, 3. naje. 16. Elsemis, 17. Ral. 18. Olor. 20. Enpe-bazle. 10. Va. 11. Ad. 12. Irdimen. **Horizontalak:** 1. Riga. 5. Gol. 8. Ira-

Etxebizitzak

- **Garaje itxia alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua salgai Erguinen.** Tfnoa: 77 02 01.
- **Pisua salgai San Andresen.** 65 m² ditu. Tfnoa: 79 53 50.
- **Biltegi bezala erabili daitekeen lokala alokagai merke merke.** Kalealdean dago eta 34 m² ditu. Tfnoa: 79 20 48.
- **Garaje itxia salgai edo alokagai Larrea plazan.** Tfnoa: 79 39 50. Gauzez dei egin.
- **Aldagainen garaje plaza salgai.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 77 81.
- **Pisua alokagai Zarugalden.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Garajea salgai Altamiran.** Tfnoa: 79 70 70.
- **Erdiko kalean pisua alokatzen da.** Sukaldea jarrita dago. Tfnoa: 78 19 06.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Hondartzatik 500 metrora, guztiz jantzia (telebista, ikuzkailua), autobus geltokiaren ondoan. Oso aproposa lau lagunendako. Prezio bereziak jubila-tuentzat. Tfnoa: 78 14 72.

Lana

- **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 92 86. Ainhua.
- **Neska gertu etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko.** Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Etxean, dendan... edozein lanetarako gertu.** Tfnoa: 79 76 45.
- **Lurra barnizatu** (barniz ekologikoarekin) eta parketa jartzen dut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Tfnoa: 71 50 72.

- **Neska prest umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 96 10.
- **Andra gerontologian diplomaduna eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Latinezko klaseak jasoko nituzke.** Tfnoa: 79 94 92. Dei egin arratsaldeko 7etatik aurrera. Pilar.
- **Klinikako eta geriatriako laguntzailea** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 39 09.
- **Emakume euskalduna prest umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lana egiteko.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 28 98.
- **Sukaldari lana egiteko gertu.** Tfnoa: 79 04 53 edo 13 36 76.
- **Arratsaldetan umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 77 07 58.
- **Neska euskaldun bat umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 04 10.
- **Irlandatik etorri berria ingelesezko klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Ileapaintzaile diplomaduna lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 63 18.
- **Langabezia dagoen irakasleak** euskaraz zein erdaraz klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 94 04. Dei egin eguerdian. Marijo.
- **Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 03 32.
- **Emakume euskalduna eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 56 81.
- **Umeak zaindu edo denda baten lan egingo nuke.** Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.
- **Neska bat behar da etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 89 32.

- **OHO, REM nahiz BUPEko matematikako klaseak** emateko gertu. Tfnoa: 79 90 46. Susana.
- **Matematikazko klaseak:** algebra, kalkuloa, probabilitatea eta estatistika, ematen ditut. Tfnoa: 79 09 72. Joxe Felix.
- **Neska euskalduna bulegoak garbitu,** etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.

Salerosketak

- **P-12 Sanyo bideo kamara salgai.** Berri berria dago, estreinatuta barik. 75.000 pta. Dei egin eguerdian 79 51 27 tfnoa. Jabi.
- **Baserriko kiwiak salgai.** Etxeraino eramango dizkizugu. 125 pta. kilo. Tfnoa: 79 97 84.
- **Artzai txakur emea oparitzen da,** gaztea da. Tfnoa: 88 75 80.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilia. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.
- **Bigarren eskuko 486 TX2 ordenagailua erosi-**ko nuke. Tfnoa: 79 31 47. Josema

Denetarik

- **Giltza batzuk galdu nituen** San Andresetik Erdiko Kalerako bidean. Estutxe berde baten barruan daude giltzak. Tfnoa: 77 06 51. Blanca.
- **Abenduraren 25eko** arratsaldean urrezko pul-terera galdu nuen erdialdean. Elisabeth izena jar-tzen du. Tfnoa: 79 13 01. Sarituko da.

Aste Gazte

Lana

- Gernika - Lumoko udalak, lanpostu hauek kaleratu ditu. Kirol teknikari bat, diruzaintza-ko teknikari bat, peoi bat, igel-terero bat, kontserje bat. Guztien epea: Urtarrilak 18.
- Oñatiko Udalak, kultura teknikaria lanpostua deitu du. Titulazioa: Unibertsitateko erdi mailako titulua eta 4. hizkuntz eskakizuna. Epea: urtarrilak 16.
- Nafarroako herri adminis-traziorako institutuak, ekonomi zientzietako diplomatu bi behar ditu. Epea: urtarrilak 18.

Bekak

- Euskal Herriko Unibersitateko ikasleei zuzendutako garraio bekak, unibertsitateko joateko egunero 25 kilometrotik gora egin behar dutenentzat. Epea: urtarrilak 18
- "Mapfre Medicina Fundazioak", hirugarren adina eta pertsona elbarrituen gaien inguruan, ikerketa bekak deitu ditu. Epea: urtarrilak 31.


Ikastaroak

- Fraisoroko Nekazaritza eskola, nekazal sektorean lan egin nahi


duzen gazteentzat hainbat ikastaro antolatu du. 1) Ahate eta antzara hazkuntza eta gizenketa, urtarrilaren 21etatik martxoaren 2ra arte. 2) Nekazal enpresen kontugintza eta kudeaketa, otsailaren 5etik 29ra arte. 3) Traktorea gidatzeko baimena, otsailaren 19tik apirilaren 16ra arte. 4) Lorategien diseinua eta zaintza, martxoaren 4tik maiatzaren 7ra arte. 5) Erlauntzen erabilera eta erle erreginak nola hazi, maiatzaren 6tik ekainaren 1era arte. 6) Sagardogintza, martxoaren 18tik ekainaren 7ra arte. 7) Behien ernalketa artifiziala, otsailaren 12tik apirilaren 9ra arte. Ikastaro guztiak, ikasle kopurua mugatuta daukate. Orduetgia arratsaldez izango da 3etatik 6ak arte.

"Hamazazpirekin joan doan adin baten muga nabarmentzen da, inozentziaren, aipaezineko hunkipenen adina: anbibalentsia, zehazgabetsuna pisatzen hasten den adina"

SOLEDAD PUERTOLAS. IDAZLEA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea	☎79 20 18
---	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
--	-----------

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6	☎79 50 75
---	-----------

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
---	-----------



UNITED COLORS
OF BENNETTON.

Maialako Errabola, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Ifnoa: 79 50 78 ARRASATE